



AIHERRA

Ximiko bat bihotzean..

Joan den igandean, Xipri Arbelbide apezka, ofizialki joan zauku ; eta ainitz Aihertar ta Izturiztarrek nahi izan dute eskertu, lehenik Izturitzeko meza nagusian parte hartuz, bai eta ondoko ospakizunetan, hala nola 2 Herriko etxeek eskaini hurrupaldian, eta arratsaldeko kantaldian.

Meza bururatzean, Frantxoa Christy-ren ala J-Michel Donapetry-ren mintzaldiak entzun ditugu, ta Ramuntxo Christy eta Eric Etcharten bertsu hunkigarriak gozatu. Xipri ala parte hartzaile guziek, bazaukatela ximiko bat bihotzean, ez da dudarik.

Milesker xipri eta laster arte !

Orreaga-ko beilan

Joan den astezkenean zortzi, buruileko lehen astezken guziz bezala, Orriako beila ginuen, Orrian edo Orreagan (frantsesez Ronceveaux).

Usaian bezala, sekulako jendea bildu da hor, bai meza nagusian eta bai bezperetan. Hemendik ere baginen multxo bat, oinez goizeko 2ak 1/2tan abiatu girenak Donibane Garaziko Maiorga ikasetxe aintzinetik. Hastapeneko ximixta ta ortzi karraskek lekua utzi diote azkenean denbora goxo bati. Eta gauaz patarrak ordokitzen baitira, ibilkari guziak frango aise heldu gira beila tokirat goizeko 9ak eta 9ak ½ arte hortan.

Giro alai eta anaikor bat beti baitago ibilkarien artean, ez da dudarik helduden urtean ere oinezkako beilatiar hauk hor izanen girela.

Argazkia ; « Aiherra aldeko multxoa bazkaiten ari »

Aiherra-Antzuola 25 urte

Eta bai, jadanik 25 urte badu Aihertar eta Antzuolar batzuk elgar ezagutu zutela. Eta jadanik 5 urte badu, 2 herrien arteko lotura horiek bihurgune ofizial bat hartu zutela. Larrazken eta helduden primadera arte hortan, izanen da pesta eta ospakizun 2 herri hauietan, 25.urteburua orroitaraziko daukutenak.

Anartean, orroit orain beretik autobusez Antzuolara abiatuko girela Urriaren 11an, goizeko 9ak 1/4tan, han hasiko baitira 25 ;urteburu hunen lehen ekitaldiak. Xehetasunak berantago ! !

Ezkontza : Frantxoa ta Virginie - Joanden larunbatean, Bidaineko Frantxoa Sabaloue-k biziko laguntzat hartu du Virginie Lekunberry neska gaztea. Elizkizunak Aiherrako elizan iragan dira, familiako eta lagun saldo batez inguratutik. Itzalean etxe pollitean bizi den familia gazte huni, bai eta hauen haurñoari, bi-itzite uros bat desiratzen diotegu.

Heriotze, Gaston Barbier - Lerro hauk idaztean, Etxeberriko Gaston BARBIER zendu dela jakiten dugu. Duela zonbeit egun, Kanboko Anienia eri etxera eremana zuten. Barkatzen ez duen gaitz horrek du ereman. 77 urte zituen. Ehorzketak asteazken huntan iragan dira, Aiherrako elizan. Dolumin bizienak Raymond emazteari, bai eta familia guziari.

Auxoteiko birla zoingehiagoka - Urte guziz Auxoteiko birletan antolatua den biranazkako zoingehiagoka bereziaren sasoin betean gira, igande arratsalde guziz Aiherra eta inguruetakoko jokolariak hor biltzen baitira. Finala haatik, larunbat arratsaldez jokatu da urriaren 10ean, eta usaian bezala afari alaituarekin bururatu da. Orroit beraz orain beretik, eta anartean joan ikustera !

Hirigintza planoaz, bilkura - Hirigintza (PLU) plano baten xutik ezartzea deliberratu baitute Aiherrako hautetsi edo kontseilariak, proiektu hau nola ikusten duten jakinen dugu laster, gai huntaz informazio bilkura bat antolatzen baitute Aiherrako Denen Etxean, buruilaren 29an, asteartez, arratseko 8etan. Nor-nahi etor daiteke bilkura huntara.

Ttoma OSPITAL-en balentria : Munduko orgina joile gazteen arteko xapelketa ereman du Zaragozan, joanden ortzegunean !! Baginakien Ttoma gure herritarra xapelketa haundi baten prestatzen ari zela, orgina joile gisa. Lehiaketa hau Espainiako Zaragoza hirian iragan da, joanden astean, eta baziren Errusia, Kroazia, Italia, Korea, Japonia, Suitza, Holanda, Mexiko eta Espainiatik etorriak ziren orgina joileak, denak 30 urtez petikakoen mundu mailako lehen lehiaketa hunen irabazteko gutziarekin. Orotarat 7 emazte eta 6 gizon, gaztenak 19 urte eta gehienak 30. Hots, gure Ttoma OSPITAL herritar gaztea, artista hoberenen artean ginuen !
Finalerdietan, kanpo gelditu dira Mariko Hirikiri japonesa, Tatiana Ryabova errusiarra bai eta Alexandra Stashenko beste errusiarra. Finalean 3 toki baizik ez



Ttoma OSPITAL urrezko medela eskuetan, joanden ortzegunean, Zaragozan



Ttoma Ospital orgina joile xapelduna, epai mahaikoen erdian

izanez, Yurefeva 27 urteko St. Petersburg-eko errusiar anderea, Paovo Masic 29 urteko Zagreb-eko kroaziarra eta Thomas OSPITAL 19 urteko aihertarra dira hautatuak izan. Hiru artista hauek, baxotxa bere aldi, emozio haundiz lehiatu dira Zaragozako Katedralean, J. Sebastien Bach, Charles M. Vidor, Dupre eta Messiaen-en obren interpretatzeko. Azkenean, hoberena zauku jali Ttoma Ospital, xapelketa huntako orgina joile gazteena. Urrezko medaila bat bai eta 6000 euro eskaini dizkiote, helduden urtean dizka etxe batek CD baten grabatzeko ahala emanen diolarik. Sari harriarria, dudarik gabe, 2006-az geroz Ziburuko elizan, bai eta 2008-az geroz Notre Dame d'Aubervilliers Parise ondoko elizan orgina joile den gure herritarrentzat. Goresmen beroenak merexi ditu ! Menturaz, urte ondarrean izanen dugu artista gazte hunen ikusteko parada, hemen gaindi, bakantzetara etorriko delarik. Abendu ondarrean ere, Antzuolako elizan konzertu baten emaitera galdatua baita (Aiherra-Antzuola 25. urteburuko ospakizunen karietara), xehetasun guziak emanen dauzkitzuegu hemendik beretik. Anartean, biba Ttoma Ospital, eta segi aitzina !!